



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_162739/17_02

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Lege Aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan martxoaren 26an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde zuzeneko onarpena martxoaren 21koa da eta, ekainaren 28koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela *abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua*. Artikulu hori jarraiki, alde zuzeneko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Lege Aurreproiektuaren edukiari dagokionez, honela dio 12.5 artikuluan:

12. artikulua.- Xedapen orokorrak idazteko arauak eta irizpideak.

5.- Testua bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, edo gaztelaniatik euskarara edo euskaratik gaztelaniara itzuli, dagokion araudian aurreikusitako tekniketako edozein erabilita. Hori guztia, **aldez aurretik onartzeko izapidea egin baino lehen(...)**

Ikus dezakegunez, bat egiten du aurretik esandakoarekin. Kasu honetan, lege mailako xedapena izanik eta, *abenduaren 22ko, 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legea* ordezkatzera datorrenez, testu elebidunaren premia berariaz jasotzea aurrerapauso onuragarria iruditzen zaigu.

Bide beretik, komenigarria litzateke berariaz jasotzea hasierako testuaren zati bietan (euskarazkoa zein gaztelaniazkoa) joan beharko direla, aldi berean, egokitzapenak txertatzen izapideak aurrera egin ahala.

Oraindik gaur egun gertatzen da, testu osoa eduki arren, horren zati bakarrarekin lan egitea (gaztelaniazkoa, oro har) aldaketak txertatuz eta izapidetza amaieran itzulpen berri oso bat eskatzea ezertan kontuan hartu gabe hasieratik zintzilikatutako jatorrizko beste zatia (jokabide bereziki larria aintzat harturik tartean emandako txosten guztiak hura eduki zutela oinarri).

Aurretik adierazi dugun bezala, halakoetan prozedura legea urratzen dela ondorioztatzen badugu ere, ona litzateke Lege Aurreproiektu berri honetan indar gehiago ematea berariaz adieraziz.

Bestalde, honela dio 22.4 artikuluan:

22. artikulua - Espedientea eta memoria.

*4.- Espedientean bildutako izapide ezberdinak eta kanpoko parte-hartzea, formulatu diren hizkuntza ofizialean bakarrik dokumentatuta egon ahal izango dira. Hortaz, barne izapide guztiak ez dute zertan hizkuntza bietan egon beharko, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako edo beste era batera **bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzitako dokumentuak** -itzuli gabe- **onartzera behartuta dagoen edozein organo edo erakunde publikora aurkezteko edo bidaltzekoak**, eta gardentasunaren ondorioetarako jatorrizko dokumentuen argitalpenerako direnak, betiere, informazio publikoa eskuratzearekin lotutako legediarekin bat etorrira, herritarrek gai horretan dituzten eskubideak bazter utzi gabe.*

Azaroaren 20ko, 10/1982 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen 8. artikulua honela dio:

8. artikulua

*1. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteez emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok **bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.***

*2. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako **herri-aginteez esku hartzen duten egintza guztiak** eta baita administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere **bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute**, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute.*

Artikulu honen idazkera irakurketa anitzen oinarri izan bada ere, gaia epaitegietatik igaro ondoren eztabaidak erabat baretu dira.

Adibide bezala, hona hemen zer dioen EAEko Auzitegi Nagusiak, maiatzaren 25eko, 212/2016 epaian (aurretik ere berak esandakoa berretsiz):

“(…)el artículo 8-2 de la Ley 10/1982 de normalización del uso del euskera (ídem, los artículos 6 y 9) se refieren a las relaciones de los ciudadanos con la Administración Pública(…)”

“La redacción bilingüe está ordenada para la publicación de las disposiciones o resoluciones de los poderes públicos (...) y para los actos, notificaciones y comunicaciones de esos poderes dirigidos a los ciudadanos o interesados privados,(...)”

Beraz, Lege Aurreproiektuaren 22.4 artikulua bat egiten du, administrazioaren barneko zein administrazioen arteko aurreikuspenei dagokienez, EAeko Auzitegi Nagusiak egiten duen lege ordenamenduaren irakurketarekin; ondorioz, baita *10/1982 Legearekin* ere.

Kezka gehiago sortzen digute 22.4 artikulua horren azken esaldiek:

“(…)gardentasunaren ondorioetarako jatorrizko dokumentuen argitalpenerako direnak, betiere, informazio publikoa eskuratzearekin lotutako legediarekin bat etorruta, herritarrek gai horretan dituzten eskubideak bazter utzi gabe.”

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen alorrean zilegi iruditzen zaigu, itzulpen eskaerarik onartu gabe, balio osoa duen jatorrizko dokumentua igortzea, *abenduaren 9ko, 19/2013 Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko Legearen 18.1.c) artikuluari jarraiki:*

18. artikulua. Eskabideak ez onartzeko kausak.

1. Ez dira izapidetzeko onartuko, ebazpen arrazoitu bidez, honako eskabide hauek:

c) Hedatzeko, aldez aurretik, **berriro prestatzea behar duten informazioari buruzkoak.**

Ikus dezagun zer dioen, *urriaren 1eko, 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 15.3 artikuluan:*

15. artikulua. Prozeduretako hizkuntza.

3. *Administrazio publiko instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli beharko ditu autonomia-erkidegoko lurraldetik harago ondorioak izan behar dituzten dokumentu edo espedienteak edo haien atalak eta **espresuki hala eskatzen duten interesdunei zuzendutako dokumentuak.**(…)*

Esku artean ditugun kasu guztietan dokumentuak ez daude herritarrei zuzenduak, administrazio barne prozedurari begira sortuak dira (ondoren, gardentasuna helburu, herritarren eskura jartzen badira ere).

Halere, Lege-proiektuaren 22.4 artikulua azken esaldi horiek lotzen baditugu, 19/2013 Legeak ezartzen duen “*publikotasun aktiboa*” rekin, hona hemen zer dioen bere 5. artikuluan:

Publikotasun aktiboa

5. artikulua. Printzipio orokorrak.

*4. Gardentasun-betebeharren mendeko informazioa **dagozkion egoitza elektronikoko edo web-orrietan argitaratuko da**, argi, era antolatuan eta **interesdunek ulertzeko moduan** eta, ahal bada, berriz erabiltzeko moduko formatuetan. Argitaratutako informazioa eskuragarria, kalitatezkoa eta elkar eragiteko eta berrerabiltzeko modukoa izateko bitartekoak ezarriko dira, bai eta informazio hori identifikatu eta lokalizatzeko beharrezkoak direnak ere.(...)*

*5. **Informazio guztia ulergarria**, erraz eskuratzeko modukoa eta doakoa izango da, eta desgaituentzat eskuragarri egongo da bitarteko edo formatu egokien bidez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioari jarraiki.*

Lege bi horien elkarreraginaren ondorioa balitz gaztelania hutsez dauden dokumentuak horrela argitaratzea eta, aldiz, euskaraz daudenen itzulpena egin behar izatea Autonomia Estatutuan jasotako hizkuntza koofizialtasunaren printzipioa urratuko litzateke.

Beraz, argitu beharko litzateke ulergarritasuna dokumentuen idazkerari lotzen zaion edota horien hizkuntza ere bere baitan hartzen duen.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Lege Aurreproiektuaren aipatu berri dugun 22.4 artikulua aurreikuspena erabateko elebitasuna ekiditeko lagungarria izan daiteke hizkuntza normalizazioan baldin eta horrekin batera neurriak ezartzen badira euskararen erabilerari bultzada emateko.

Horrekin lotuta, Lege Aurreproiektuaren aurretik aipatutako 12.5 artikulua ere lagungarria izan daiteke; bereziki lehentasuna ematen bazaio idazketa elebidunari.

Halere, jakina da zein sarritan, testuak gaztelania hutsez sortu ondoren, elebitasuna bermatzea IZOren esku uzten den. Joera horiek aldatzeko eta egiazko administrazio elebiduna lortzeko ezinbestekoa da sortze hizkuntzari bultzada ematea.

Lan hori, neurri handi baten sailtako euskara planen bitartez lortu beharko da.

Baina, alderantzizko norabidean, xedapen proiektuaren 12.5 artikulua honetan itzulpenen erabilerari egiten zaion aipamenak egonkortu dezake itzulpenetara jotzeko ohitura; testu elebidunak lortzeko modu naturala balitz bezala.

Horregatik, iruditzen zaigu lagungarria litzatekeela itzulpeni egiten zaien aipamena kentzea. Adibidez:

5.- Aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondoko instrukzio-fasean izapidetu baino lehen testua bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, idazketa elebidunari lehentasuna emanaz.

Bestalde, Lege Aurreproiektuaren 1.2 artikuluan esaten da:

2. Lege bidez eta modu arrazoituan baino ezin izango dira sartu izapide gehigarriak edo lege honetan ezarri ez diren beste izapide batzuk, baldin eta izapide horiek prozeduran ez egoteak eragina izango badu hartutako xedapenen baliozkotasunean eta eraginkortasunean(...)

Xedapen Proiektuaren testuan ez da jasotzen, izapideen artean, hizkuntza normalizazioari buruzko txostena.

Euskararen normalizazioaren ikuspegitik onuragarria litzateke aipatutako txosten hau lege betekizun mailara eramatea xedapen honetan berariaz txertatuz.

Halaber, kudeaketa aurreratuaren bidetik, kontuan hartu behar dugu hizkuntza normalizazioa erakunde osoaren ardurapeko zeharkako gaia dela, genero berdintasunarena bezala.

Halere, ematen du gaur egun oraindik zenbait kasutan betebeharrak ez dagoela behar beste barneratua. Genero berdintasunaren kasuan ere asko kostatu da baina azken urteetan emandako urratsak nabariak dira. Horretan, legediak ezarritako neurriak ezinbestekoak izan dira.

Horregatik, oso komenigarria litzateke euskararen normalizaziorako, genero berdintasunarekin egiten den bezala (proiektuaren 12.4 artikulua), xedapenen prozeduraren baitan, izapidetzerantz igorri aurretiko hasierako fasean, arau proiektu bakoitzaren sustatzaileek hizkuntza eraginari buruzko hausnarketa egin behar izatea eta horren berri ematen duen txosten edo oroitidazkia eranstea izapidetzerantz bidaltzeko dokumentuen artean.

Aurretik aipatu dugun bezala, 12.5 artikulua berariaz ezartzen du xedapen proiektuen izapidetzea testu elebidunarekin egin beharko dela.

Halere, 5.3 artikulua aurreikusten du ezarritako neurri hori agian ez dela beteko:

3. (...)xedapen baten baliozkotasuna eta efikazia eragindakotzat jotzen bada izapidetze elebidunari buruz lege honetan aurreikusitakoa urratu delako, izapidetze elebidunaren xede izan ez den hizkuntzan idatzitako testuaren zatiari mugatuko zaio eragina eta Administrazioa behartuta egongo da baliogabetutako zatiaren ordezkotestua presaz eta modu egokian izapidetzera. Nolanahi ere, ordezkotestuak erabat errespetatu beharko du bi testu ofizialen arteko baliokidetasun linguistikoaren printzipioa indarrean jarraitzen duen bertsio linguistikoarekiko.

Kezka sortzen digu ikusteak 5.3 artikulua ahuldu egiten duela 12.5 artikuluan ezarritakoa.

Honela dio Lege Aurreproiektuaren 14.3 artikulua:

*3. Izapideak egiteko eginkizuna dutenek egin beharko dituzte izapideak, **aurretik eskabidea egin gabe** eta soilik espedientea -bere txosten, azterlan eta memoria eta guzti- aintzat hartuta. Izapide guztiak aldi berean egingo dira eta **hilabete leko epe berean**, aurretiaz onartutako xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoan argitaratu ondoren. **Aipatutako epea igarota, ezingo dira funtsezkoak ez diren izapideak bete.***

Alde batetik, uste dugu funtsezkoa litzatekeela hilabeteko epea ez hastea zenbatzen testu elebiduna eskuragarri jartzen ez den bitartean.

Bestetik, baloratu beharko litzateke kasu batzuetan txostenak langile bakar baten esku daudela eta, halakoetan, giza baliabideen kudeaketari lotutako gora beherak eragin handia eduki dezaketela (oporraldiak, aldi baterako ezintasunak, hutsuneak...). Agian, hobe litzateke azken esaldia moldatzea izapideari aurrera egitea ahalbidetuz baina aldi berean oztopatu gabe burutu gabe gelditu diren izapideak igortzea.

Halaber, gaur eguneko “Tramitagune”n ez dago ekarpenik igortzerik izapidetzaileak ez badizu aurretik ataza esleitu. Beraz, aurreikusten den formulazioa, eskabiderik gabea, ez dakigu bideragarria izango den.

Bestalde, kontuan harturik zer nolako bilakaera eduki duen euskara teknikoak azken hamarkadatan eta, horren ondorioz, indarrean dauden zenbait xedapenetako idazkera zeharo zaharkitua gelditu dela, ulergarritasunaren kaltean, gomendagarria litzateke xedapen horien hizkuntza eguneraketari heltzea.

Onartu nahi den Prozedura Lege berri hau toki aproposa izan daiteke, xedapen gehigarri baten bitartez, Legebiltzarrak gomendioa emateko Jaurlaritzari zaharkitutako testu horien idazkera eguneratzeko eta testu berriak EHAAn argitaratzeko balio ofiziala emate aldera.

Lege Aurreproiektuaren 25.3 artikuluan aipatzen den bezala Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiria jaulki dezake euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko; beraz, indarrean dauden testuen edukia aldatuko ez zenez, ez litzateke beharrezkoa izango xedapenak onartzeko prozedura errepikatzea.

Agian, bi gomendio bereizi daitezke:

- a) Alde batetik, gomendio orokorra agindu zein dekretu mailako xedapenen idazkera zaharkituak eguneratzeko.
- b) Bestetik, lege mailako xedapenen kasuan, zerrenda bat prestatzea Itzultzaile Zerbitzu Ofizialarekin elkarlanean eta gomendioa zerrendatutako xedapenei lotzea.

Azkenik, txosten honen esparrutik kanpoko gaia izan arren, ematen du 12.5 artikulua azken esaldia euskarazko testuaren idazkeran ez dela guztiz egokia; honela dio:

*(...)Hori guztia, aldez aurretik onartzeko izapidea egin baino lehen **eta instrukzio-fasean izapidetu gero.***

Gaztelaniaz, aldiz, honela:

(...)antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción.

Halaber, gomendagarria izan daiteke 22.4 artikulua euskarazko testuaren idazketa berrikustea.

Laguntze aldera ohartarazten dizuegu, zuzendu ahal dezazuen egokia baderitzozue.

Laburbilduz.

Proposamenak:

- a) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena Lege honetan jasotzea ezinbesteko izapide bezala.
- b) Xedapen sustatzaileek hizkuntza eraginari buruzko aurretiko hausnarketa eta oroitidazkia egin beharra ezartzea.
- c) Itzulpenei buruzko aipamena kentzea 12.5 artikulutik eta idazketa elebiduna aipatzea.
- d) Jasotzea hasierako testu elebidunaren gainean txertatu beharko direla aldaketak urratsez urrats hizkuntza bietan, amaierako itzulpenik gabe.
- e) Berriaz jasotzea izapideak egiteko hilabeteko epea zenbatzen hasiko dela testu elebiduna zintzilikatzen den unetik.
- f) Izapideren bat ezin izan bada gauzatu hilabeteko epearen barruan, eraginkortasun mugatuarekin bada ere, aukera ematea ondoren ere burutzeko.
- g) Euskara zaharkitua duten xedapenen berridazketa ahalbidetzeko xedapen gehigarria.
- h) Baloratzea “ulergarritasun” printzipioaren eragina 22.4 artikuluan ezarritakoan.
- i) Berrikustea 5.3 artikuluan ezarritakoa.
- j) Berrikustea eskabiderik gabeko izapideen bideragarritasuna (Tramitagune).

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria